

**Arartekoaren 2015R-1462-15 Ebazpena, 2015eko azaroaren 26koa. Horren bidez, Eusko Treni gomendatu zaio berrikusi dezala gidatzearekin eta merkataritza arretarekin lotutako lanpostuak estaltzeko lan poltsa eratzeko xedez iragarri duen deialdiaren markoan argitaratutako erreserba-zerrenda (1462/2015/QC kexa-espeditentea).**

### Aurrekariak

1.- Kexa-idazki bat jaso zen erakunde honetan, Eusko Trenek, gidatzearekin eta merkataritza arretarekin lotutako lanpostuak estaltzeari begira, lan poltsa eratzeko iragarri zuen deialdia dela-eta.

Kexagileak hautagai batzuekiko bereizkeriazko tratua egoteko posibilitatea salatu zuen; zehazki, lehenengo faseko proba teorikoak eta gaitasun probak zuzendu ostean, 400 hautagaiko aurretiko aukeraketa gainditu bai, baina gutxieneko euskara maila egiaztatzea lortu ez zuten hautagaiez ari da.

Pertsona horren arabera, hautagai horiek (69 guztira) jendaurrean agertutako erreserba-zerrendatik kanpo geratzearen ondoriozkoa da bereizkeriazko tratu hori, zerrenda horretara hain juxtu, antza, hurrengo lau urteetan zerrenda zabaltzeko erabiliko den bakarra horixe izanik, hasiera batean aurrez aukeratutako 400 horien artean ez zeuden eta euskarako proba gainditu ez zuten beste hautagai batzuk sartu baitira.

2.- Kexa izapidetzea erabaki ondoren, Eusko Treneko zuzendariaren lankidetzak eskatu zuen erakunde honek, deialdiaren markoan gai horren inguruan hartu ahal izan diren erabakiak egiaztatu eta ezagutzeko asmoz.

3.- Gure eskaerari erantzunez, erantzun-txostena igorri du Eusko Treneko zuzendari orokorrak. Bertan, zera azaldu du:

*“Hautagaiei eman zaien tratamendua deialdiko oinarrietan aurreikusitakoa izan da.*

*Lehenengo fasea gainditu zuten pertsonak eta lehenengo 400 artean aurkitzen zirenek, automatikoki bigarren fasera joaten ziren eta, une horretan bertan, eskatutako euskara maila egiaztatu behar zuten (B2). Egiaztatu ez zutenek, tituluaren aurkezpenaren bidez zein IVApek burututako proba gaindituz, hori baita kexa burutu duen pertsonaren kasua, ezin izan zuten jarraitu hautaketa prozesuan.*

*Lehen fasea gainditu zutenek baina lehenengo 400 pertsonen artean aurkitzen ez zirenek hasiera batean ez dute jarraitzen hautaketa prozesuan, baizik eta datozen 4 urteetan sor daitezken langileen beharrezko arabera geratzen dira eta orduan hasierako hautaketaren hedapena burutuko da. Hau da, pertsona hauek, beharrezkoa izanez gero, euskara egiaztagiria egiaztatzeko beharrezko ez dute enpresak prozesu hori hedatzeko erabakia hartu arte, une horretan 400 tokitik gainerako gainditutako pertsonak*



*bigarren fasera joango ziren eta eskatutako euskara maila egiaztatu beharko lukete.*

*Halere, IVAPekin 400 pertsonentzako proba aurreikusi zenez eta horien artean 267k titulazioa aurkeztu zuten, azken horiek ez zuten zertan azterketa burutu bhearririk horrek esan nahi du burutu beharreko guztira 133 izan zirela. Titulua egiaztatu ez zuten bigarren kolektibo honetako 264 pertsonen proba hori egiteko aukera eman zitzaien, nahiz eta prozesua hedatze baten hipotesi unera arte egiaztatzeke derrigortuta ez egon”.*

### Gogoetak

1.- Erakunde honek egindako lankidetzeta-eskaerari erantzunez Eusko Treneko zuzendari orokorrak emandako informazioak kexagileak emandako bertsioa egiaztatzea ahalbidetu digu. Horrela, aurrez aukeratutako 400 hautagaien arteko 69 hautagai, hautapen-proben lehenengo fasea gainditu bai, baina bigarren proban eskatutako euskararen ezagutza maila egiaztatu ez dutenak, prozesutik erabat baztertuta geratu direla egiaztatu ahal izan dugu, eta, ondorioz, erreserba-zerrendan sartzeko aukerarik gabe geratu direla horiek. Eusko Trenek lan poltsa zabaltzeko beharra ikusiz gero erabiltzeko ezarri da erreserba-zerrenda hori, deialdiaren indarraldiak iraun bitartean (4 urte).

Hala ere, eta haxe da kexagileak salatu duen bereizkeriazko tratua, 400 hautagaien artean aurrez aukeratu ez diren hautagaiek euskara maila egiaztatzeke proba egin ahal izan dute, txostenean ageri diren arrazoiak direla-eta, eta ez dute erreserba-zerrendara sartzeko eragozpenik eduki, nahiz eta azken proba hori gainditu ez; izan ere, eta horrela arrazoitu da erantzun-txostenean, pertsona horiek ez dute euskararen ezagutza maila egiaztatu beharrik enpresak, beharrezko ikustekotan, prozesua zabaltzea erabaki arte.

2.- Gertatutakoa azaldu ostean, gidatzearekin eta merkataritza arretarekin lotutako lanpostuak estaltzeari begira lan poltsa eratzeko iragarri den deialdia gidatzeko ezarri diren oinarrien edukia balioztatzeke unea iritsi da.

Halere, horietako batzuk aipatu eta nabarmendu aurretik, hautapen-prozesu hori eratzeko moduari buruzko zenbait zertzelada labor ematea komeni da.

Deialdiak oposizio fasea eta lehiaketa fasea bereizten ditu. Oposizio faseak ondoko ondoko lau fase ditu. Horietako lehenak, aldi berean, proba teorikoa eta izaera proba dauzka, nahitaez egin beharrekoak biak, eta hautagaiak kanporatzen dituzte. Jarraian, euskararen ezagutza proba egiten da bigarren fasean. Hautagaiak kanporatzen dituen proba da hori ere, eta gai/ez gai kalifikazioa baino ez du ematen. Hirugarren fasea elkarrizketa pertsonala da, eta, aurreko fasean bezala, gai/ez gai kalifikazioa baino ez du ematen. Azkenik, mediku-lan gaitasunak ikuskatzen dira laugarren fasean; nahitaezkoa da, eta baztertzaila.

Lehiaketa fasean, bestalde, enpresan aurretiaz edukitako esperientzia profesionala baloratzen da.



Azken puntuatzeak ahalbidetzen du hautagaiak lan poltsan ordenatzea. Oposizioko lehen bi faseetan lortutako puntuatzeen batez besteko aritmetikoak zehazten du azken puntuatze hori, eta lehiaketa fasean eskuratutakoa gehitzen zaio horri. Baina deialdiaren oinarrietara itzuliz, horietatik guztietatik eta esku artean dugun kexaren xedeetarako, honakoak interesatzen zaizkigu:

Zazpigarren oinarria - Oposizio fasea:

Lehenengo faseak dauzkan proba ezberdinak zehazteaz gain, zera aurreikusi du oinarri horrek:

*“Behin lehenengo faseko proba teorikoen eta gaitasunen zuzenketa burututa lortutako puntuazioaren arabera lehen hautaketa burutko da, horrela gainditutako lehenengo 400 pertsonak prozesuan aurrera jarraituko dute. Gainditu duten gainerako pertsonak hau indarrean dagoen aldian zehar poltsa barruan dauden pertsona kopurua hedatzea beharrezkoa den unean prozesuarekin jarraitzeko deituak izan daitezke. Gaindituko 400 pertsonen kopurua ez bada lortzen, prozesua jarraituko da bakarrik lehenengo fasea gainditu dutenekin”.*

Hamargarren oinarria - Lan poltsaren eraketa:

*“Lan poltsa hasiera batean hautaketa prozeduraren lau faseak gainditu dituzten pertsonekin eratuko da, eta hurrengo sailetan laugarren fasea apurka-apurka gainditzeko doazen pertsonekin gehitzen joango da (lan gaitasun medikoak).*

*Hautagaien lehen blokeari dagozkion lan gaitasun medikoak behin burututa, Epaimahai Aztertzaileak enpresako Zuzendaritzari jakinaraziko dio gero honek hasiera batean lan poltsa osatzen duten hautagaien izendapen proposamena onartzeko.*

*Behin lehenengo hiru faseak gainditu dituzten pertsona guztiei lan gaitasun medikoak burututa, Epaimahai Aztertzaileak enpresako Zuzendaritzari jakinaraziko dio lan poltsa osatzen duten hautagaien behin-betiko izendapen proposamena onartzeko eta gero Campo y Ochandianok web orrialdean, EuskoTreneko web orrialdean eta EuskoTreneko Bezeroaren Arreta Bulegoetan argitaratzeko.*

*Poltsak irauten duen bitartean (4 urte) hasiera bateko 400 pertsonen gain, lehenengo faseko proba teorikoak eta psikoteknikoak/gaitasunekoak ere gainditu dituzten hautagaien kupo berri bati deituko balitzaio, prozesuko fase guztiak gainditzeko dituzten pertsonak, laneko poltsaren azkenera sartuko dira, adostasun dei bakoitzaren barruan ordenatuz lehenengo 400 pertsonen irizpide berdinekin”.*



Garrantzitsua da nabarmentzea, erreserba-zerrenda iragartzean, honako ohartarazpena erantsi dela:

*"401. kokalekutik 697. kokalekurainoko hautagaiak, BIGARREN FASEAN (euskara proban) EZ GAI kalifikazioa atera dutenak, ez dira hautapen-prozesutik baztertutako, eta, deitzen zaien unean, B2 mailari dagokion egiaztapena aurkezteko aukera izango dute, hautapen-proban jarraitu ahal izateko deialdiaren oinarrietan eskatu baita hori".*

Gure iritziz, zazpigarren oinarriak argi utzi du hasieran aurrez aukeratutako gehieneko 400 hautagairekin eratu nahi izan dela prozesua, eta probekin jarraitzea ahalbidetu zaiela horiei. Gainontzeko hautagaiak erreserba-zerrendan daude, beti ere, hori bai, oposizio faseko lehenengo probak gainditu badituzte gutxienez. Hautapen-probekin jarraitu ahal izateko deitu ahal izango zaie horiei, beharrezko ikusiz gero poltsa osatzen duten pertsona kopurua handitzea.

Dena dela, hamargarren oinarria ez da hain argia.

Lehenengo paragrafoan hasierako lan poltsa eratzeari egin zaio erreferentzia, eta hautapen-probako lau faseak gainditu dituzten hautagaiek osatuko lukete hori; horrek, berez, ez du zalantzarik sortu.

Jarraian, lehenengo paragrafo horretan, bai eta bigarreanean eta hirugarreanean ere, ordea, beste izendapen proposamen batzuk ageri dira "hurrengo sailetan" Oinarri horretan ezarri denaren interpretazio integratua egiteak zera pentsarazi behar duela uste dugu, hautagai guztiek ez dituztela aldi berean egingo 4. faserako ezarritako mediku-lan gaitasun probak.

Amaitzeko, azken paragrafoan adierazi da hautagai berriak hartzeko aukera egongo dela, eta oposizioko lehenengo fasea gainditu arren, hasieran aurrez aukeratu ez direnak izango direla horiek. Horrek azal dezake, eta zentzua eman, erreserba-zerrenda eratzeke modua, jada aipatu duguna.

Hala ere, nabaritu ahal izan den bezala, deialdiko oinarriek ez dute berriaz aipatu zein tratu eman behar zaien lehenengo faseko proben ondoren aurrez aukeratu dituzten, baina prozesuko gainerako probak gainditzea lortu ez duten hautagaiak.

3.- Azken kontu hori balioestera sartuz, adierazi beharra daukagu gure esku-hartzeari erantzunez jaso dugun informazioaren arabera baieztatu dezakegula Eusko Treneko Zuzendaritza Orokorra ulertzen duela hautagai horiek prozesutik kanpo geratu behar direla behin betiko.

Berez, nahitaez onartu behar da mota horretako ondorioa, duen sakonera albo batera utzita, saihestezina dela, kontuan hartuta hautapen-prozesu gehienetan sartzen diren probak eratzeke ohikotasunez erabiltzen den kanporaketa sistema.

Dena dela, esku artean dugun kasuan, ezin dezakegu albo batera utzi deialdiaren helburua lau urteko iraupena duen lan poltsa eratzea dela, erreserba-zerrenda edukitzea ere aurreikusitua duena, prozesuarekin jarraitzeko deialdi berriak egiteko bertatik.

Horrela, euskara jakiteko eskakizunari dagokionean behinik behin, denbora horretan zehar gerta liteke hasiera batean aurrez aukeratu bai, baina euskarako proban ez gaitzat jotako hautagaietako edozeinek, gero, beste deialdi batean, poltsan sartzeko eskatutako ezagutza maila egiaztatzea ahal izatea. Horren ondorioz, horien



egoera, merezimendu eta gaitasun posibleei dagokienez, erreserba-zerrendan dauden eta euskararen ezagutza maila egiaztatzeko duten hautagaien egoerarekin pareka daiteke.

Baina, gainera, esku artean dugun kasuan, zirkunstantzia erantsi bat daukagu, prozesuko parte-hartzaileentzat hasiera batean aurreikusitako tratua erabat asaldatu duena: auzitegiak hasiera batean aurrez aukeratu ez ziren 264 hautagairi ahalbidetu die euskarako proban parte hartzea, eta, nahiz eta ez duten proba gainditu, horiek erreserba-zerrendan mantentzea erabaki du, baina ez die aukera hori eman aurrez aukeratu bai, baina euskara proban gaitzat jo ez ziren 69 hautagai.

Garrantzitsua da adieraztea modu horretan hautagai batzuk zigortzen direla, izan ere, oposizioko lehenengo fasean emaitza hobekak eduki zituzten arren, alboratuta geratu dira merezimendu gutxiagoko beste hautagai batzuen mesederako; euskara maila egiaztatzea lortu gabe, berriro saiatzeko uzten baitaie horiei, deialdi berria egotekotan.

4.- Honaino iritsita, gogorarazi egin behar da, eta mahai gainera ekarri, Konstituzio Auzitegiaren etengabeko dotrina. Horren arabera, konstituzioko 14. artikuluko bermatzen duen berdintasun printzipioa azpimarratu da, horrek ezarri baitu tratua bera eman behar zaiela egoera berean daudenei, erabat debekatuz justifikazio objektiborik edo arrazoizkorik gabeko edo neurrigabeko desberdintasunik.

Horrek, normalean, harreman-epaiketa egitera behartzen du. Horrekin, beharrezkoa da alderatu nahi diren egoera subjektiboak, hain zuzen, homogeenak edo parekagarriak izatea, hau da, alderatuko dena ez izatea ez arbitrarioa, ez apetatsua. Baina Konstituzio Auzitegiak berak zehaztu duen bezala, egitatezko bi egoera edo kasu berdintzat jo behar dira, horietako batean bestearengandik bereiztea ahalbidetuko duen elementuren bat sartzean, oinarri arrazionala falta duela balioetsi behar bada, eta, ondorioz, arbitrarioa bada, ez delako beharrezkoa aipatu alderdi bereizgarria sartzea legegilearen xedea betetzeko. Horrelaxe baieztatu du, adibidez, Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 15eko 199/2004 Epaiak, aurretik idatzitako beste epai batzuetan adierazitakoa aipatzean (Guztiek, Konstituzio Auzitegiaren urriaren 4ko 200/2001 Epaiak [ Konstituzio Auzitegiaren Bilduma 2001, 200] , F. 5). ).

5.- Kontuan hartuta konstituzio dotrina hori, berriro aztertzen badugu gidatzearekin eta merkataritza arretarekin lotutako lanpostuak estaltzeari begira Eusko Trenek lan postua eratzeko iragarri duen deialdiaren harira gertatu dena, egiazki, ez dugu funtsik edo arrazoirik aurkitu hautagai batzuei bestelako tratua ematea justifikatzeko edo babesteko, azken batean, auzitegiak hartutako erabakien ondorioz, guztiz parekagarria den egoeran baitaude; izan ere, enpresak berak aurrekusi du prozesuarekin "*jarraitzeko*" aukera, etorkizunean beharrezkoa balitz zerrenda osatzen duten pertsonen kopurua handitzea. Hain zuzen ere, oposizioko lehenengo faseko proba guztiak gainditu dituzten hautagaiak dira, multzoan hartuta horiek, baina ez dutenak euskara maila egiaztatzea lortu eman zaien lehenengo aukeran. Horregatik ulertu dugu baztertu beharrezkoa dela tratua bereizi hori, tratua arbitrarioa baita, eta berdintasun printzipioaren aurka jotzen baitu.





Gauzak horrela, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honakoa da Eusko Treni luzatzen zaion

## GOMENDIOA

Berrikusi dezala gidatzearekin eta merkataritza arretarekin lotutako lanpostuak estaltzeko lan poltsa eratzeko xedez iragarri duen deialdiaren markoan argitaratutako erreserba-zerrenda, 69 hautagai horiek sartuz aipatu zerrendara, hots, lehenengo faseko probak zuzendu ondoren aurrez aukeratutako 400 hautagaien artean egonik, ez dutenak euskararen ezagutza maila egiaztatzea lortu sartuz.

